

Futboleko II. Lemoako Harrobi Alebin Txapelketea hilaren 11n

14. orrialdea

Timoteo Atutxaren gaineko liburua kalean da

Oiane Valerok eta Txema Uriartek, Igorreko Udalak emondako memoria historikoa ikertzeko beka baten laguntzaz, *Timoteo Atutxa Petralanda (1894-1937) Idatziak eta gutunak* izeneko liburua aurkeztu eben martiaren 30ean Igorreko Kultur Etxean. 16. orrialdea



Julen Zuberok irabazi eban Kolazino Mendi Eguneko BTT lasterketea

15. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

227

2015eko apirilaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org

"Inozko Korrikarik handiena" Arratia, Ubide eta Zeberion

Arratia, Ubide eta Zeberion jente asko batu zan lekukoaren atzean Korrikagure eskualdetik pasau zanean, martiaren 28 eta 29an.

Alarte, alderdi politiko, lagun kuadrila, udal ordezkariak...umeak, nagusiak, helduak eta zaharrak, danak egin eben galapan lekukoa eroateko ohorea eukanaren atzetik. Izan be, "inozko Korrikarik handiena" izan da 19. hau, Korrikako arduradun Asier Amondok balorazino agerraldian esan eban

moduan. Eta hori Arratian be igarri zan. Korrikalariak emozinoz bete egin eben bide zati bat, urduri eta pozik. AEK-ko Klara Astondoak eta Miren Madariagak, mikrofonoa eskuan, animazioa ipini eben furgonetatik. Sei orrialdetako fotoerreportajejan jasoten dira momentu hareek 8.-13. orrialdeak



Ainhoa Mendia begituko banatzailea eta Irene Bilbao Zertu Kultur Elkarteko presidenteordea.

ARRATIA

Caritas Arratia

Eleiza katolikoko Caritas Arratia alkarteak, 2014an 23 familia lagundu ebazan diruz, 10.000 euro baino gehiago bananduz bonu txartelen bidez.

Dirua parrokiaren batzean dabe urteko lau kanpainatan. Batutako dirua, lehenengotik, IV. Bikaritzako kutxara eta gero Caritas Bizkaira bialtzen da. Eta hortik jasoten dabez diru laguntzak beharizanai aurre egiteko.

Caritaseko Gizarte Langileak eta Mankomunidadekoak batzartu egiten dira laguntzak ondo bideratzeko.

Ekorropa dendak eta bidezko merkataritzea be bultzatzen dabe Caritasekoak.

Behar hau guztia egiteko boluntarioak dagoz Arratiako parroki guztietan, baina proiektu barriak aurrera ateratako boluntario gehiago behar dirala dinoe Caritasekoak. 6. orrialdea

DIMA

Herri antzerkia eta ibilbide mitologikoa aprilaren 25ean

Diman, jentilen gaia hartuta, aparteko ikuskizun handi bat prestatzen dabez atzen hilabeteotan. Antolaketa beharrea herriko talde bat dabil, Txumuluxueta Kultur Elkartearen barruan sortutako batzorde bat. Ikuskizun handi honerik *Jentilak Diman* izena ipini deusie. Ekitaldi bi izango dira. Arrastian "Ibilbide mitologikoa". Jentilzubik, Baltzolako kobak eta Axlorrek osotuko dabe ibilbide hau. Gauean, barriz, herrian izango da ekitaldia: kalejireta eta herri antzerkia. 5. orrialdea



ARRATIA

EAJ-PNVk alkategaiak aurkeztu ditu

Arratiako alkatezarako hautagaiak aurkeztu ebazan EAJ-PNVk martiaren 27an Igorreko Lasarte Aretoan. Honeek dira Arratiako herrietan aurkeztuko diranak: Begoña Llano (Arantzazu), Arkaitz Amuriza (Areatza), Alberto Etxebarria (Artea), Aitor Sorriketa (Bedia), Josune Gorospe (Dima), Andere Ortuzar (Igorre), Iñaki Barrenetxea (Lemoa) eta Eusebio Larrazabal (Zeanuri). Ubidek oraindino ez dau hautagairik aukeratu. 7. orrialdea

begitu

arratia ubide zeberio

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

www.begitu.org

ARRATIA ZURI-BALTZEAN

ZEBERIOKO UDALETXEA EREGITEKO LANAK 1743-46 (I)

XVI. mendean, Bizkaiko uribildu batzuk baeukien udaletxea, Durangok adibidez, baina salbuespen gitxi batzuk baino ez ziran. Uribildu eta eleizate gehienak, batzarrak batzorde edegietan egiten ebezan XVIII. mendea ondo sartuta egon arte. XVIII. mende erdialdeko urteetako egoera ekonomiko apartari esker, udaletxeak eregiten hasi ziran Bizkaian eta 1790erako ia uribildu eta eleizate guztiak eukien euren udaletxea.

Zeberion udaletxea egiteko lanak 1743. urtean hasi ziran, bailarako administrazioak 33.000 errealeko kreditua eskatuta. Maileguan hartutako diruaz harago, proiektu hau handia zala zirkun-

tantzia bik erakusten dabe ondo: alde batetik, Zeberioko administrazioari hainbeste diru itxeko ez ebela topau herritarren artean mailegu emailerik eta Bilbora jo behar izan ebela. Han, Don Joseph de Zornotzak itxi eutsen dirua ehuneko hiruko interesagaz. Beste alde batetik, bere historia osoko momentu ekonomiko onenean egin arren, Zeberioko administrazioak ia hogei urte behar izan ebazan zorra kentzeako. Holan, 1761ean mailegua ordaintzeko atzenengo ordainketea egin zan arte, ez zan beste obra handirik egin Zeberion.

Arkupedun 20x20 metroko etxetzarra egitea 41.032,5 erreal

kostau zan. Administrazioen izenean ordaintzeko eta lanak ikuskatzeko arduraduna Don Joaquín Ignacio de Meñaca y Santa Cruz izan zan. Zeberioko Juan de Olazar maisu harginak atera ebazan lanok enkantean, eta 1746. urtean amaitu ziran udaletxea eregiteko lanak.

Honaino, bailarako administrazioen ordezkartzarako egoitza izango zan udaletxea egiteko lanak ez dirudie harrigarriak eta esfortzu finantziarioak be ulergarria dirudi. Baina udaletxea eukiteak ondorio gehiago izan ebazan eta hurrengoan aitatu doguz ondorio horreek.

Jürgen Lange
Erredakzinoan itzulia



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Martiazen 30etik apirilaren 6ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Apirilaren 7tik 12ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.

Apirilaren 13tik 19ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.
Zeberiokoak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan**22:00etatik 09:00etara**

Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Arriorriaga

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

Zeberio-Arriorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Zeberio-Artea

Arriorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Arteaoraino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Arriorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandio korrik ez dago.

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Praktiketako ikaslea: Irati Urien.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizidadea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Azibar Sagarna eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.800 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

In eta Izitu, Inlitzu!

Inlitzu Arratia eskualdean bizi garen gazteak gara. Eskualdea bera, bizia da, etenbako eraldaketan dago eta gazteok ez gara horretan atzean geldituten, gu be eraldaketa horren parte aktibo garelako. Aldaketa honek azterketa bat beharrezko daua uste dogu, horregaitik Inlitzu. Behatzaile-behatu dikotomia apurtuten dauan ikerketea da hau, gu geu garalako ikertzaile eta ikertu. Aitaturtekoa da ikerketa hau aurrera eramateko soziologo bategaz alkarlanean gabizala.

15 eta 30 urte bitarteko arratiarrak izango gara ikergai, gazte defnidutearen mugak nonon ipini behar izan doguzalako. Eskualdeko gazteon oztupoak, beharrianak, ardurak zein gurak ezetutea izango da oinarria. Aztertu ahal izateko, ezetu egin behar. Horretarako inkesta bat sortu dogu, Arratiako etxe guztietara helduko dana. Garrantzitsua da albokoaren buruan zer pasetan dan jakitea gerora begira Arratian zeozer barria sortuteko edo dagoanari buelta bat emoteko.

Inkesta hau hasikerea baino ez da, ideak batuteko ezinbeste-

koa, eta daukagun bide bakarra. Inkesta anonimoa izango da eta beteteko erreza; hori bai, gure zintotasunaren arabera balioa eukiko dau. Banandutako inkestak Igorreko Kultur Etxean egongo dan buzoi baten sartzea eskatuko deusuegu beratu beteko dozuen eta ikerketa hau burututen lagunduko deuskuzuen gazte guztiai, zeozelan batu behar doguz eta danon erantzunak. Gura izan ezker online be egongo da beteteko aukerea eta gazteinkestek@gmail.com helbidera baino ez da bialdu beharko. Behin erantzunak jasota, argitaratu egingo doguz, herriak eta gura dauanak eskuragarri euki dagiazan.

Ostera, talde eztabaida irekiak sortuko doguz alkarren ideak partekatuteko eta ezetuteko. Talde eztabaidetarako giroa informala izango da sano. Zer hobeto pasta batzuk, te, kolakao edo zurito baten inguruan batutea baino. Bertan itxarongo zaitugu gazte, konbidautu zagoz! Herriko panelari adi, bertan eukiko dozue eta gure barri.


INIZITU

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Inizitu



Hodeiak edo trumoiak jo aurretik, energia handiko deskarga elektrikoa sortzean da. Fenomeno honeri inizitu (inisitúe, inixitúe, agoskatuta) esaten deusagu. Honako era honeetara be ezagutzen da Arratian: inizistu, inixistu, inistu, inistu, inestu, oinaztu (oinaztu, oñaztu), oinizitu (oñizitu), oinetsitu, oineztu (oñestu), oiniziztu, oinizitu; unizitu (unisitu, Zeberion); oinaztari (oñastari, lpiñaburun); Ubiden, justuri, oinestari (oñestari); dirtada eta tximista. "Inizitua lez/tximistea lez" lokuzinoa erabilten da baten bat oso arin dabilela esateko.

ERETXIA

Pozik gagoz gure hizkuntza politikeagaz?



JON BOLLAR
Zeberioko Euskera Teknikaria

Galdera horren aurrean makinatxo bat hasiko da pentsetan udal, Jaur-larritza, erakunde... desbardinak aurrera daroezan politiken inguruan. Batzuentzako egokiak izango dira abian dagozan hizkuntza politikak, beste batzuentzako ez, hirugarren batzuek esango dabe hizkuntza eta politikea ez dirala buztartu behar... baina hemendik hausnartzeko luzatzen deusuedan itauna ez da erakundeen politikearen ingurukoa, geuk darabilgun politikearen ingurukoa baino. Izan be, erakundeetan hizkuntza eta politika bananduezinak diran lez (edo... euskerea sustatzen ez danean ez da ba erdere sustatzen? Badago hizkuntzarik erabili barik egiten dan jarduerarik?) gure eguneroko bizitzan be hizkuntza politika bat jarraitzen dogu. Okindegira goazenean euskeraz edo erderaz egingo dogu, komunikabideak hizkuntzaren baten konsumiduko doguz, tramite desbardinak egiteko be hizkuntza bat hautatuko dogu... Hau da, guk geure hizkuntza politikea daukagu. Eta hau da boteprontoan atera gura neban gaia, bakotzak hausnartu daian... Izan be, gai honetatik ez da inor be libretan: norbanakoak, erakundeak, enpresak... danok daukagu zeresana, danok daukagu geure erantzukizun puntua.

Baina, hausnarketa laburraren ostean, zelan egin aurrera? Izan be, izan zeinke munduko euskaltzalerik euskaltzaleena, goizetik gabera arte euskeraz egitea erabagi dauana... baina etxetik atera orduko lehenengo trabai, lehenengo oztupoai, lehenengo eskubide urraketai egin beharko deusazu aurre. Hiru hamarkadatik gora euskerearen legea onartu zanetik eta oraindino be euskal hiztunok erdal hiztunen menpe! Ez da makala euskaldunoi bizitea "tokau" jakuna! Hori bai, onar-

tu beharra dogu urraketak eta urraketak dagozala. Ez da gauza bera kaletik zoazela kartel bat erdera hutsean ikusi izana ala medikuarenean euskeraz egin ezin izana. Biak salagarriak baina bigarrena... benetan larria! Oraindino jarraitzen dogu entzuten mediku ona eta euskaldunaren artean aukeratu beharra dogula. Gaztelaniaz dakienak ete dira onenak? Ah, ez... gertatzen dana da legez derrigortuta dagozala gaztelaniaz jakitera... eta hori, Espainia mailan egindako azken azterketetan medikuntza euskeraz ikasitakoak lortu dabezenean notarik onenak!

Ez da gauza bera Tele 5en euskeraz egin ezin izana ala ETB2n egin ezin izana. Zelan da posible EITBk euskerearen normalizazioan egin beharreko lana egin ez eta oraindino erdere normalizetan ibiltea? Hau da egun euskal hiztunoi askotan konturatu barik sartzean deuskuen goletako bat. Larriki urratzen deuskuen eskubidea. Izan be, larritzat jotzen dot erderaz behar egiten daben komunikabideak -eta benetan salagarria ETB2, geurea eta publikoa dalako- euskal hiztunai

emoten deuskuen tratamendua. Bardin da anonimoak zein ospetsuak izan, erderaz berbetan jarten gaitue, Euskal Herriaren mapa linguistikoa desitxuratzearino. Gaztelaniaren aldeko hizkuntza politika honegaz udalerrri euskaldunak erdaldundu egiten dabez ikuslearen aurrean. Eta zer esanik ez euskal hiztunok sentidu geinken biolentzia linguistikoaren gainean, egunero erabilten dogun hizkuntza aldatzea exijitzen jakunean...

Ez da gauza bera honen jakitun egonda ezer egin ez ala zeozer egitea. Ipinten deuskuezan tresnak erabiltea ala ez erabiltea. Urraketen aurkako ibilbidea bakarrik egitea ala ondoan laguntza izango dogula jakitun izanda aurrera egitea. Zeberioko Udalak emongo deuskun laguntza lakoa. Izan be, Zeberioko Udalak hitzarmen bat sinatu dau Hizkuntza Eskubideen Behatokiagaz zeberioztarren hizkuntza eskubideak bermatze aldera. Aurretik irakurteko aukera izan dozuen lez herritarrok udalagaz, Aldundiagaz, autobusean, medikuarenean, finantza erakundeetan... leku guztietan euskerea erabilteko eskubidea aitortua izan arren gaur dala eguna hori beteten ez dana. Eta horretara dator sinatutako hitzarmena. Hitzarmen horren bidez udalak herritarrek animau gura gaitu euskerea erabili ezin dogunean herriko udal lokal desbardinaten egongo diran buzoietan kejak sartzera. Ostean, Udala, Behatokiagaz alkarlanean, kejai konponbidea jarten ahaleginduko da. Baita udala bera danean hizkuntza eskubideak urratzen dauazana be, udal kudeaketea hobetuten lagunduko deutso eta.

Halandaze, hemendik animau gura zaituet euskerea erabili ezin izanagaitik zuen eskubideak urratzen deusuezanean honen barri emon daizuen. Bitartekoak eskura dozuez. Eta, kontuan izan salatzen ez dana ez dala existiduten, eta urrats txiki hau egiten dozuen bakotxean zuen atzekoak errezago izango dabela euskeraz bizitea.

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA

Erretailatzailea
Batzen jantza

MONDRAGON

LUMATUTEN

NEKANE
INTXAURTZA
ETXEBARRIA

Korrika

Zelan azaldu bakotzak Korrikagaz bizi dauana?

Gure ondora heldu orduko sortarazoten deuskun adrenalineak gora eta gora egiten dau; lo be, batzuk behintzat, txarto egiteraino.

Nik aurten hiru leku desbardinetan hartu dot parte. Nafarroan Marimendi taldeagaz, Arratian kilometro desbardinetan eta Bilbon amaieran.

Altabozetatik askotan entzun dogu Klara Astondoa edo Miren Madariagaren abotsa: Ze kilometro polita!

Eta holan da, danak desbardinak, danak politikak, danak hungigarriak.

Eskerrik asko Arratiako AEK-koai be, egunero jentea euskalduntzen egiten daben beharraigaitik.

Baina tristetu be, tristetu naz Korrikaren momentu batzuetan. Inguruan euskaldun diranak erderaz entzutean. Hori be

errealidadea dalako, ez gaitezan engainau.

Eta konzientzia hartzeako ordua da. Hau irakurten badozu eta horreetako bat bazara mesedetxo bat eskatu gura deusut. Hartu bost minutu, bai bost minutu horretaz pentsetako.

Korrikaren magia bizi dogu: bakotzak, gure etxeokakaz, lagunakaz, lehengusu-lehengusinakaz, alkarteko kideakaz, politikoak, lankideakaz, kuadrilakoakaz... danak momentu berezi horren zain. Korrika jatorku! Eta hori bai, hori prestatu lei eta holan egiten deuskue AEK-koak bi urterik behin. Baina euskeraz egitea, hori ezin deuskue prestatu, hori guk egin behar dogu.

Lorea Agirrek, 2500 kilometro egin dauan lekukoan etorren mezuan, ederto esan deuskun moduan: Auzia ez da izan ala ez izan, kontua egitea da.

Egin daigun ba euskeraz!

ZERTZEAN



ALVARO RABELLI

Joxe eta andrea txapeldunak ziran nagikerietan, alkarri geituteko euren izenak laburtu eta guzti egiten ebezan ahalegin handiegirik ez egitearren, eta ez pentsau oso izen luzeak ebezanik. Beraz, Jo eta An senar-emazteek albait gitxien egitea eukien ardura bakarra. Ez eben behar egiten, ez batak ez besteak. Zertarako behar egingo eben, jasotako heredentzia bateri esker bizi baziran. Gitxi da esatea ogetik belu altzetan zirala, askotan hurreratu be ez ziran ogera hurreratzan besaulkitik ez mugidutearren. Orduan goizak bertan harrapetan ebazan, besaulkian jarrita erdi lo, telebista bezperatik piztuta, Jok, guragabe, kontrola ostiko batez larregi urrundu ebalako.

Bada, auzoan lapurretak egiten hasiak ziran aspaldion, indarrez egin be. Auzokideak aztoratu samartuak ebilzan, ez ordea Jo eta An senar-emazteak. Behin, gaba batez, negua heldu barritan, lotara joan ziran logelako leihoa zabalik itxita. Bietako inor ez zan zerretan jeikitzen, hotz egiten hasia zan arren, gero eta hotz handiagoga gaubeak aurrera egin aha-

la.

- An, mesedez, jeiki eta zerrau bentana hori behingoz!

- Ez, laztana, joan zeu, ni nekatuta nago.

- An, baina zergaitik kostetan jatzu?

- Zuri bardin kostetan jatzu, zoaz bada!

Holan, ordu erdi emon eben eztabaidatzen. Atzanean akordioa egin eben. Berba egingo eban lehengoia leihoa zerretan jeikiko zan. Handik ordu batera, gaubearen ilunpean, zaratotsak entzuten hasi ziran etxean bertan, nonor sartu zan barrura zabalik egoan leihotik, baina Jo eta An senar-emazteek isilik iraun eben. Auzokideak bildurtuta eukazan lapurra zan. Egongelatik etozan zaratak entzuten ziran, balio handiko gauzak osten ziharduan, baina Jo eta An senar-emazteek isilik jarraitzen eben, harik eta...

- Jo!!! Jo!!! Lapurra ogera sartu jaku!

- An, hara! galdu egin dozu! Zoaz bentanea zerretan!

- Baina, Jo!!!

- Ez kexatu eta zerrau bentanea, ze, niri hirutan emon deust eperditik eta ez dot agoa zabaldu!

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Ukatuezina da galdakoztar askok lotura berezia dogula Arratiagaz (eta alderantziz): senide, beharleku, lagun, berba eta ohitura asko konpartiduten doguz. Ohitura batzuk aspaldi-aspaldikoak badira be, badagoz barriago batzuk urteroko hitzordu bihurtuten dabilanak geure artean.

Horreetako bat da Axpe Goikoa jatetxeko lagunak orain hiru urte kaleratu eben txakolinaren denporaldiko aurkezpen jaia. Geroztik, besteak beste, Lamindaon bertan alkartzen gara urtero hainbat arratiar eta galdakoztar. Aurtengo edizinoia martiaren 21ean ospatu genduan. Galdakoztar asko, gure herriko Andra Mari Dantza Taldeagaz joaten gara jantzan, kantuan eta bazkalordua musikaz alaitzera. Baina gainera, aurretik bertsolari, aizkolari eta harri jasotzaileakaz gozatzeko aukerea be izaten dogu.

Erretratuan, Axpe Goikoaren babesean, gaurko jantzariak eta biharko aizkolaria; danon artean, "Garena" txakolin barriaren aurkezpena lagunarteko jaia bilakatzen dabilelako. Funtsean, garena eta izango garena be jagon egin behar dogulako!

Jon Gomez Garai



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarrabia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Hilategi Zerbaita 100
R.P.S. 21/06

FISIOTERAPIA **Balneario Areatza**
Tania Fernandez Santiago
COL. 1718
www.gruposasobide.com Tel: 94 657 54 50

DIMA

Jentil, kristinau eta sorginen gaineko ibilbidea eta herri antzerkia hileon

Aprilaren 25erako *Jentilak Diman* ikuskizuna antolatu dabe dimoztarrak. Ekitaldi bi izango dira, "Ibilbide mitologikoa" Jentilzubi eta Baltzola eta Axlorkobetan zehar 17:30etik 19:30era, eta herri antzerkia herrian hamarretatik aurrera. Antolaketa beharrea, Txumuluxueta alkartearen barruan sortutako batzorde bat dabil. Guztira 400 lagun inguruk hartuko dabe parte eta 7.000 euroko aurrekontua dauka ikuskizunak.

Erredakzioa

Ikuskizunaren lehenengo ekin-tza mendian egingo da; jentilen gaineko ipuin, pasadizu eta sinesteak kokatzen diran lekuetan. Horretarako, "Ibilbide mitologikoa" prestatu dabe antolatzaileak Jentilzubi, Baltzolako kobak eta Axlorkobaren aterpeko indusketa arkeologikoen inguruetan zehar. Ibilbidean 5 geldialdi egingo dira. Geldialdi bakotxean izenen eta mitologiari buruzko azalpenak emongo dabez gidariak, eta

Baltzola kobaren barruan ipuin mitologikoak antzeztuko dira. Ikuskizunaren ondoren, Axlorkobara joan eta Lydia Zapata zana-ren zuzendaritzapean egindako indusketa arkeologikoak bisitauko dabez partaideak. Hogeta hamar lagunek hartuko dabe parte ibilbide mitologikoaren antolakuntzan.

Herri antzerkia

Gauean, herrian ospatuko dan herri antzerkia izango da *Jentilak Diman* ikuskizunaren bigarren

ekintza. Zubimakurretik pelotalekura kalejiran joango dira jentil, kristinau eta sorgin jantzitako herritarrak, eta gero pelotalekuan ikuskizuna egingo dabe. Kalejiran 300 lagun inguruk hartuko dabela parte emon eban jakitera Gotzon Aurrekoetxea koordinatzaileak. Pelotalekuko ikuskizunean barriz, 60 lagun inguruk. Izan be, ekintza honeetan herriko kultur taldeak

hartuko dabe parte. Jantzariak, korua, eskolea, guraso-alkarteak eta beste hainbat kultur alkarteak, hain zuzen be. Antzezleak herriko jentea izango dira. "Kalejireak, zaratatsua, argitsua eta mobidua izatea gura dogu; kaleko argiteria amatau eta gure argiakaz bakarrik argituta" hori holan izateko beharrea dabilazela azaldu eban koordinatzaileak.

20 urtez su bajuan egondako proiektua

Ikuskizunaren idea orain dala 20 bat urte sortu zala esan eban Aurrekoetxeak, "su bajuan", luzaroan egon dala eta orain gauzatzeko ordua heldu dala. Idea garatuteko taldea osatu zan lehenengotik: dekorazioa, jantziak, jantza taldea, elektronika, eta abar. Gero, gidaria, aurrekontua eta aktoreak zehaztutea etorri zan.

Ekin-tza honek aurrera eroteko aurrekontua 7.000 eurokoa da eta dirua lortuteko laguntza bonu batzuk saldu eta Udala, BFA, herriko merkataria eta enpresarien diru laguntza be izan dabe.



ARTEA

Martitzenetan be zabalik Arratiako Enplegu Zentroa

Erredakzioa

Martian, Arratiako Enplegu Zentroa, martitzenetan be atek zabalduten hasi da. Sartu Kooperatiba espezializaduren bitartez, Orientazio Berezi eta Orokorreko Zerbitzua eskeintzen da bertan iraupen luze-ko langabeentzat batez be.

Zemendian hasi ziran Artean behar-rako prestakuntza eta orientazioa emoten, bariku goizetan, 08:30etik 14:30era. Han, Lanbiden izena emonda daukanai edo Lanbidetik deributakoai, eskeintzen jakie espazioa orientatzaile baten laguntzeagaz, enplegua bilatzeko eta prestakuntzarako.

Enplegu Zentroa 77 personak erabili dabe hiru hilabetetan

Lanbideko Enplegu Zentroa Artean zabaldu ebanetik Arratian enplegurako orientazio zerbitzua eskeintzeko, 77 lagunek erabili dabe zerbitzu hau Arratiako Udalen Mankomunidadeak emondako datuen arabera. Erabiltzaile asko Dima eta Igorrekoak dira, eta, batez be, 40 eta 55 urte bitartekoak. Arantzazu, Lemoa eta Areatzako langabetuak be hurre-ratu dira zentro honetara enplegua topetako orientazio bila.

Europako Funts Sozialeko diru-gaz finantzietan da.

LEMOA

Zuerako kartzelara alkartasun urtekerea

Erredakzioa

Bagabiz badatuz ekimenak, datorren aprilaren 18rako, Zuerako (Zaragoza) kartzelara alkartasun urtekerea antolatu dau. Kartzela honetan Iñaki Bilbao Lemoakoa dago preso. Bilbaok zigorraren hiru laurdenak beteta daukaz.

Autobusa Lemoako Karabie

ELKARTASUN IRTEERA
ZIGORRAREN 3/4ak BETETA
BERE ESKUBIDEA DALAKO
IÑAKI ETXERA!
Apirilak 18an Zuerara!

Gaztetxearen azpiko parking-etik urtengo da goizeko 10:00etan. Ize-

na emoteko lemoanguredoguz@gmail.com helbidera idatzi behar da.

Bizkaifisios SLk
bi zentro ditu
Fisioterapia Zentroa Igorre
Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08
Andra Mari Klinika
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1. Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64
www.bizkaifisios.com

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak
Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONTUTAN
ONDARUN HIRIGIZINEN
ABOGUETAN
Bilbao Astea, 3. Floor, 94 671 71 41 - Fax: 94 671 84 91 - 48140 IGORRE

SESORCAK
basola Emaldi
ENBEN ADMINISTRAZIOA
Abokatuak
620. 57.86.04
aslerobasola@hotmail.com
Bilbao-Zeanuri

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

umeen moda
sem
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • semmoda@hotmail.com

ARRATIA

Gorbeian turismoa modu integralean bultzatzeko proiektua aurkeztu da**Erredakzioa**

Gorbeian turismoa bultzatzeko asmoz, Gorbeia gune turistikoak "Gorbeia osorik zure etxean" izeneko proiektua aurkeztu dau. Bizkaiko Arratia-Nerbioiko Eskualdea eta Arabako Zuiako Kuadrillak osotuten dabe Gorbeia Gune Turistikoa. Proiektua, bertako establezimenduak alkarren barri emotean oinarrituten da.

Proiektu honen helburua da Gorbeia "enbajadore" izatea nekazal eta landa etxeak, hotelak, jatetxe eta tabernak, aisialdi-guneak, zerbitzu enpresak eta abar; hau da, bertan turismo mailan behar egiten daben agente pribadu guztiak. Proiektu honen

arabera, partaideak Gorbeian egin daitezkean planik onenen, ibilbideen, esperientzien eta tokiko produktuen gaineko informazioa emongo dabe eta euren etxeetan eukiko dabez produktak. Gauza bi lortuko dira holan; alde batetik, euren eskeintzea erakargarriagoa egitea, eta bestetik, turismo arloan behar egiten daben beste establezimenduari bultzadea emotea.

Horren barri jakiteko bildu ziran martiaren 17an, Elosun (Araba), 45 enpresatako 55 persona; Hamar inguru Arratia, Ubide eta Zeberioakoak. Hurrengo bileran, parte hartzean daben guztiak, jarraitu ahal izateko arauak adostuko dabez.



Elosun egindako batzarra.

ARRATIA

Caritas Arratiak Ekorropa dendak eta bidezko merkataritza bultzatzen dauz**Erredakzioa**

Eleiza katolikoko Caritas Arratia alkarteak, 2014an 23 familia lagundu ebazan diruz, 10.000 euro baino gehiago bananduz. Diru hori, parroketan batzean da, urtean lau kanpainatan. Udal batzuen laguntza be jasoten dabe alkartean. Behar hau egiteko, Caritasek Gizarte Langileak ditu, eta Arratiako Udal Mankomunitateko Gizarte langileak hartu-emonetan egoten da. Caritas Arratiak parrokia guztietan dauka boluntarioen bat eta harrerea egiteko bulegoan, Igorren, hamabi.

Parrokietan urteko lau kanpainetan batzean dan dirua, lehenengo IV. Bikaritzako kutxara eta gero Caritas Bizkaira bialtzen dala jakinarazo dau Arratiako Eleizak. "Emoten doguzan laguntza guztiak handik jatorkuz. Horretarako, datuak jarriaz, fitxa batzuk beteten doguz. Gizarte Langileak hileru batzartzen gara laguntzak ondo bideratzeko. Esan behar da, Bizkaiko Caritasegaz bat egiten dogula laguntzak emoterakoan erispide bardinak erabilteko. Mankomunitateko Gizarte Langileak be hartu-emonetan egoten gara. Batzarrak eukiten doguz eta kasuak aztertuten doguz ahalik eta laguntza egokienak emoteko" dino boluntario batek.

Ekorropa eta bidezko merkataritza

Jatekoa edo erropea banandutea



Caritas Arratiako boluntario batzuk.

aspaldi amaitu zan Caritasen. "Krisialdi denpora honetan bonu txartelak emoten dira, jenteak erosi dagian behar dauana. Eta janaria, beste erakunde batzuek zabaltzen dabe, ez guk" dinoe Arratiako boluntarioak.

Erropea erosteko, Caritasek bultzatzen dauzan Ekorropa izeneko dendetarako txartel bat emoten jakie beharizana daukienai, baina denda horretan edonok erosi leike erropea "merke-merke".

Bidezko merkataritza be sustatzen dau Caritas Arratiak.

Azokaz azoka, Arratiako herri gehienetan bidezko merkataritza zer dan azaldu, eta produktuak ipinten dauz salgai. Parrokietan, gizarte eta justiziako gaiak landuz, Bizkaiko beste herrietako Caritasegaz koordinazioan, urtean zehar lau kanpaina egiten dabez.

Boluntario bila

Caritas Arratiako boluntarioak proiektu barriak daukiezala dinoe, "baina boluntarioak falta jakuz, behin preparazioa jasota proiektuok martxan ipinteko".

AREATZA

Areatzako Tabernari Elkartek telebista bi zozketatuko ditu

Tabernariak ateratuko kartela.

Erredakzioa

Hamaika bat taberna dagoz Areatzan eta horretatik zortzi, Area-

tzako Tabernari Elkartean. Alkartea orain dala urtebete sortu zan tabernarien beharra koordinatuko; hau da, gauzak batera egiteko eta alka-

regaz planifiketako ekintzak, eta ez daitela gertatu, egun eta ordu berean kontzertu bi egotea herriko tabernetan, berbarako. Apirilaren 30ean telebista bi zozketatuko dabez tabernariak. Horretarako, oraingo hilean zehar, Heineken produktuak konsumiduten dabanai tiketak emongo deutseez eta ONCEko kupoi sarituaren atzen hiru zenbakiak dituen tiketak sarituko dabez.

Hau tabernari alkarrearen lehenengo kanpaina izan arren, urtebete daroe beharrea, "barikuro egiten dan pintxo-potearen nondik norakoak adostu doguz, prezioak bateratu eta hornitzaileak akordio bardinak lortu. Gainera, Areatzako Kirol eta Kultur Batzordeagaz hartu-emonetan gagoz, aisialdirako eskeintza osoagoa izan daiten, bertokoen zat zein turistentzat" azaldu deutso BEGITURI Iker Mintegi alkarreko koordinatzaileak.

ARRATIA

Lehenengo lan esperientzia eukiteko bekak**Erredakzioa**

Arratiako Udalen Mankomunitateak eta Bizkaiko Foru Aldundiak beka programa bat ipini dabe martxan, sei gaztek euren lehenengo lan esperientzia euki dagien eskualdeko enpresa eta saltokietan. Bekadunak 460 euro hilean jasoko dabez sei hilabetez, egunean sei lanorduren truke. Mankomunitateak enpresa edo saltoki bakotxari 3.000 euro emongo deutzaz bekadun bakotxeko. Bizkaiko Foru Aldundiak Gaztedi Bizkaia proiektuaren bitartez finantziatuko dau ekimen hau.

Lanbiden izena emonda dau-

kien 18 eta 25 urte bitarteko gazteak hartu leikie parte. Prestakuntzeari jagokonean, Lanbide Heziketea (erdi edo goi maila), Unibersidadeko Diplomaturea edo Lizentziaturea, arte edo kirol irakaskuntzetako Goi Mailako Grada edo Profesionaltasun Ziurtagiria euki behar dabe. Bekak irauten dauzan sei hilabeteetan, Gizarte Segurantzaren alta hartuta egongo dira eta euren lan-bizitzaren parte lez agertuko da denpora hau.



ZEBERIO

Zeberioako Udalak hitzarmena sinatu dau Hizkuntza Eskubideen Behatokiagaz



Arrankudiaga-Zolloko alkatea, Behatokiko presidentea, Orozkoko alkatea eta Zeberioko alkatea.

Erredakzioa

Zeberio, Orozko eta Arrankudiaga-Zolloko Udalak herritarren euskeraz biziteko eskubidea bete daiten, hitzarmena sinatu eben Hizkuntza Eskubideen Behatokiagaz Orozkon, martiaren 24an. Hiru herrietako alkateak eta Hizkuntza Eskubideen Behatokiko presidentea dan Garbiñe Petritegi izan ziran hitzarmen honen sinatzaileak.

Zeberioko alkatea Ana Belen Alberdik, herritarrek animau gura izan ebazan euskeraz ezin izan dabenean egin eta euren eskubidea urratu dala sentidu dabenean

kejea ipintera. Baita udaletxean gertatu bada be. "Herritarrek animau gura doguz euskerea erabili ezin dabenean, udal lokaletan ipiniko doguzan kutxetan kejea sartu dagien, guk Behatokiagaz alkarlanean kejeari konponbidea emoten ahaleginduko gara" esan eban.

Euskerea erabilteko eskubidearen urraketak barrero gertatu ez daitezkan neurri zehatzak ipintera konprometidu ziran hitzarmenaren sinatzaileak.

Behatokia

Petritegik Hizkuntza Eskubideen Behatokiak 14 urte daroazala

beharrean ekarri eban gogora. Euskaldunon eskubideak bermatzeko sortu zan eta eskeintzen dabenean zerbitzu nagusia webgunean daukien euskerearen telefonoa dala esan eban. Telefono hau kejak ipinteko, zorientzeko eta dudak argitzeko be erabilten da. "Zorientzeko be bai badagozalako enpresa eta taldeak euskereari presentzia duina eskeintzen deusienak" esan eban Petritegik.

Euskeraz biziteko eskubidea ez dagoala bermatuta eta kejak ipintean garrantzia azpimarratu eban Behatokiko presidentea, "mahai gainean ipinten ez dana ez dalako existiduten".

ARRATIA

EAJ-PNVko alkategaiak Arratia hazi arazoteko helburua daukie

Erredakzioa

Martiaren 27an, Igorren EAJ-PNVk Arratiako alkatezarako hautagaiak aurkeztu ebazan. Ekitaldian, Arratiako udalerrietako zortzi alkategai egon ziran: Begoña Llano (Arantzazu), Arkaiz Amuriza (Areatza), Alberto Etxebarria (Artea), Aitor Soriketa (Bedia), Josune Gorospe (Dima), Andere Ortuzar (Igorre), Iñaki Barrenetxea (Lemoa) eta Eusebio Larrazabal (Zeanuri). Ubidek oraindino ez dau hautagaiak aukeratu.

Euren esfortzua, galdutako enplegua berreskuratzera eta eskualdeko ekonomia bizibarrizera egongo dala bideratuta adierazo eben. Ekitaldian, euren batera Ixaso Atutxa Bizkai Buru Batzarraren presidentea, Unai Rementeria Bizkai Ahaldu Nagusirako hautagaia eta Ana Otadui Bizkai Batzar Nagusiko presidenterako hautagaia egon ziran. Zortzi hautagaiak ibilbide luzea egin dabe udal politikan, batzuk alkate izan diralako eta beste batzuk zinegotzi.

Ekitaldiari, Andere Ortuzar Igorreko hautagaiak emon eutsan ha-

siekerea. "Zuen aurrean aurkezten gara helburu argi batez: Arratia hazi arazo gura dogu ilusinoagaz, esperientziakaz eta beharrez, eta, batez be, herri guztiakaz eta herritar guzti-guztiakaz hartu dogun konpromisoagaz" esan eban. Ortuzarrek personak dirala EAJ-PNVren lehentasuna eta talde jeltzaleak Igorren egin dituan parte hartze prozesuen balioa azpimarratu eban, herritarrei abotsa emoteko aukerea emon deuselako. Era berean, batasunak indarra emoten dauala esan eban eta Arratia hazi arazoteko modurik onena alkarregaz behar egitea dala. "Enplegu galduek berreskuratzeko lana egingo dogu, inguruko ekonomia dinamizetako, beste erakundeak eskua emoteko eta bertako industria bultzatzeko" baieztatu eban.

Arratia anitzago eta solidarioagoa

Atutxak emon eutsan amaiera ekitaldiari. "Zorionekoak gara hemen aurkezten deusueguzan zortzi andra eta gizonak Arratia anitzagoa eta solidarioagoa egingo dabelako eta euren herri eta herikideen alde egingo dabelako".



Arratiako EAJ-PNVko hautagaiak Igorren egindako aurkezpenean.

IGORRE

Bederatzi kaleratu Negarran

Erredakzioa

CCOO sindikatuak jakitera emondakoaren arabera, martiaren 17an Negarra enpresako zuzendaritzek 9 behargin kalera bota ebazan, alde zuzenetik ezer esan barik Enpresa Batzordeari. Kaleratzeak komunikatu jakien egunean bertan bete behar ziran. Sindikatuak, enpresek "enplegua suntsitzeko helburuagaz" segiduten dauala salatu eban eta urte bitan plantillea % 53 baino gehiago txikitu dala.

Sindikatuaren arabera, egoera sano kezkarria da eta zuzendaritzek produktzioa kendu gura dau. Horregaitik, laneku zuzena kendu eta enpresea ekoizpen zentru moduan desagertu arazo guran dabizela Negarrako Zuzen-

daritzakoak dino CCOO.

Sindikatuak Negarran enplegua mantenduteko burrukan jarraituko dauala be jakinarazo dau.



Negarra.

IGORRE

Arratiako alkartasun mezuak UNMSko andren kongresura

Erredakzioa

Martiaren 16an eta 20an, Arratiako andra talde bat, erdia inguru sahararrak, batu ziran Igorreko Kultur Etxean, oihaletan Saharako Harresiaren kontrako mezuak idatzi edo josteko. Oihal horreek *patchwork* bat egin eta estaduko beste hainbat lekutan egindakoai josiko jakiez. *Patchwork* handi hori Sahara bialduko dabe. Arratiako oihala Karmele Beobide Zeanurikoak eroango dau Tindouf-era. Beobide Saharako Emakumeen Batasun Nazionala Indartzeko Euskal Sareko partidea da. Ekimen hau estatu mailako, "Dales tu fuerza" (Zure indarra emon) kanpainaren ba-

siaren kontrako aldarrikapena izan da.

Sahararen aldeko Euskal Sarea

Jabekuntza Eskolak 2004an Euskal Sarea eratzea bultzatu eben Saharako Andren Batasun Nazionalaren Indartze proiektua lagunduteko.

rruan dago.

Ekimen hau, Saharako Harre-



Arratiako andrak Igorreko Kultur Etxean *patchwork*-agaz.

19. KORRIKA

Arratia euskahaldunez bete zan, "inozko Korrikarik handianean"

Honezkerok beharrean dabiz AEK-koak 20. Korrika prestatzen. Hemeritzagarrena, martiaren 29an amaitu zan Bilbon amaiera jai sano jentetsuagaz. Bezperan pasau zan Arratiatik eta eskualdeko herri guztietan, arratiar piloak lagundu eutsan lekukoari galapan, karran, korrika, emozinoz beteta. Mezuak inoan moduan, orain ekiteko denporea da, euskeraz egiteko sasoia. Korrika gure eskualdetik pasau zaneke hareek momentuak gogoan eukiteko, argazkiak lekuko.



Ubideko herria.

Erredakzinoa



Ubideko herria.



Madrileko kuadrilea.



Italiako kuadrilea.

KORRIKA 19

Dimako Udala.



Dimako Bildu.



Jentilzubi. Dima.



Dimako Gaztetxea.



Gaztebarri Dantza Taldea. Dima.



Luis Prieto Lagun Taldea. Dima.



Dimako Bertso Eskola.



Andraizea. Dima.



Txumuluxueta Esku Pelota Elkartea. Dima.



Dimako eskolea.



Dimako Guraso Elkartea.



Suzien Mendi Kluba. Zeanuri.



Zeanuriko Udala.



Zeanuriko eskolea.



Zeanuriko Guraso Elkartea.



Zeanuriko Sortu.



Zeanuriko Txistulariak.



Arratia Motor Taldea.



Beñat Etxebarria Peña. Igorre.



Gorbeako Gurutzea Peña. Areatza.



Areatzako Udala.




Areatzako Bildu.



Areatzako Guraso Elkarte.



AKKB. Areatza.



Igorreko agrarioak.



Aldatuz Plataformea. Artea.



Arteako Sortu.



Arteako Guraso Elkarte.



Gorosti. Artea.



Igorreko Esku Pelota Alkartea.



Lemoako Korala.




Arteako Udala.



Ganzabal Mendi Taldea.



Igitie.



**Elizportaleko Gazte Asanbladea.
Arantzazu.**



Kiñu Gaztetxea. Igorre.



Arantzazuko Bildu.



Arginatx. Arantzazu.



Arantzazuko Kultur Batzordea.



Arratia Institutuko Tranbia Txiki Guraso Elkarte.



Bertso Eskolea.



Igorreko eskolea eta Guraso Elkarte.




Igorreko Udala.



Arratiko Zekorrek Rugby Taldea. Igorre.



Igorreko Bildu.



Zaztaparrak Asti Taldea.



Luis Iruarrizaga Abesbatza. Igorre.



Arantzarte Dantza Taldea. Igorre.



Arantzazuko Udala.



Arratia Futbol Taldea.



Ormazabal. Igorre.




BATZ. Igorre.



Arratiako EAJ-PNV.



Arratiako Musika Eskola.



Bikote Alaia.



Araluce. Igorre.



AEKko Barnetegi Ibiltaria.



Durundi Barri Dantza Taldea.
Lemoa.



Austarri Mendi Taldea. Zeberio.



Iturripe Kultur eta Kirol Elkarte. Zeberio.



Zeberioiko Udala.



Austarri Kultur Taldea. Zeberio.



Txubelasu Guraso Elkarte. Zeberio.




Zeberio Eskola.



Gure Indarra Jubiladuen Elkarte. Zeberio.




Zeberio Sortu.



Bediako Sortu.



Etxerat.



Harrobi Futbol Kluba. Lemoa.



Zementoseko LAB. Lemoa.



Lemoako eskola.



Lemoako Esku Pelota Elkarte.



Bediako Udala.



Lemoako Udala.



Harriketarrak Gazte Asanbladea. Lemoa.



Lemoako Sortu.



Opel Ibaigane. Lemoa.

FUTBOLA

II. Lemoako Harrobi Alebin Txapelketea hilaren 11n**Erredakzioa**

Hamabi taldek hartuko dabe parte apirilaren 11n Lemoako Arlonaguan jokatu dan Harrobi Futbol Klubak antolatutako txapelketa. Eliteko Ligan eta Gipuzkoa eta Bizkaia mailan goren dagozan taldeetako alebinak Lemoakoakaz neurtuko dira.

A taldean, Lemoako Harrobi, Eibar eta Atletico de Madrid; B taldean, Danok bat, Alaves eta Real Sociedad; C taldean Athletic, Gasteizko Aurrera eta Osasuna eta D taldean, Baskonia FE, Antiguoko eta



Harrobi taldeko jokalarri gazteak.

Racing de Santander neurtuko dira. Hasikeratik gura eben talde horreek ekarri "normalean ez doguz ikusten talde horreek hemen eta zelan jenteari gustetan jakon eta herriarentzat positiboa dan, ahalegindu gara izen handiko taldeak ekarten eta batzuk ekarte lortu dogu" azaldu deutso BEGITURI Alex Maguregi Txapelketako antolakuntzakoak.

Goizean taldekako fasea jokatuko da. Talde bakoitxeko ekipo bi pasauko dira arrastiko kanporaketetara eta finala 20:00etan jokatuko da.

TXIRRINDULARITZEA

Arpegi barriak Tiritu master taldean**Erredakzioa**

Tiritu Ziklista Elkarateak aurten-go taldearen aurkezpena egin eban Diman, martiaren 21ean. Hainbat ziklista sartu dira master talde honetan aurten; Jon Rekon-do lemoaztarra, Alain Uriarte eta Jon Garaita Zornotzakoak, Jose Luis Dosantos dimoztarra eta Pedro Arza Arteakoa dira aurtengo arpegi barriak. Dosantos eta Arza master 40 mailan lehiatuko dira. Oscar Garro ziklismo egokitutako igorretarrak be eroango dauz Tirituko erropak prestaketa lasterketetan.

Inguruko bost enpresak, Fisik Fisioterapia Zentroak, Banco Mediolanum-ek, Piedadeondo Egoitzak, Pc Coste Galdakaok eta Olaetxe Optikak babestuko dabe Tiritu 2015ean.

Denporaldi hasikerea ez oso ona

Zumarragako Sari Nagusian, Tirituko Alberto Hierrok master 30 kategorian, laugarren egin eban



Tiritu taldea.

Argazkia: Luis Mari Iurtia.

martiaren 15ean. Bezperan, Laudion, Jon Aingeru Artetxe eta Bittor Martinez izan ziran Tiritu master taldean ondoen sailkatu ziranak, 13 eta 14. eginda hurrengo hurrengo. Denporaldia, dana dala, ezustez beteta hasi

zala dino Jalmar Bober "Jimi" Tiritukoak: "zorteak ez deusku lagundu denporaldi hasikeran, askotan jausi gara eta ospitalean be amaitu dogu behin baino gehiagotan, baina emoitzak hasi dira helduten apurka-apurka".

* Eskeintzaren balioa maiatzaren 31ra arte

MIBA-CAVA
IGORRE

UDABARRIKO ESKEINTZA**LORAK**

Geraneok eta surfiniak 1.99€
Petuniak 0.90€
Azaleak, bacopak, intsentsu-bedarra...

**PRODUKTU BARRIA**
Butanoa eta propanoa**MOTA GUZTIETAKO ITXIDURAK**

100-8-15 (100 m.)-(50 m.) eta granpiloiak% 10eko deskontua

BETIKO PRODUKTUAK

- PENTSUA: behi, txahal, untxi, oilo...
- Ongarriak
- Txakur pentsua
- Lanabesak, karretilak, erropak, guanteak...
- Ardaoa, konserbak...
- Landarak, letxugea, kinpulea, tomateak...

MENDIA

Bueltan da Txikon



Alex Txikon.

Erredakzioa

Nanga Parbat-eko (8.125m.) ton-torra egin ez arren, tontorretik hur egon ziran Txikon eta bere espedizinokideak. Martiaren 16an, espedizinokideen osasun egoerak derrigortuta, Behe Kanpalekua itxi eta espedizinoa amaitutzat emon eben mendizaleak.

Altuerako gaitzak jotako Ali "Sadpara" osatzen doa, baina bai

berak bai Txikonek kongelazioak daukiez behatzetan.

Hilabete bi honeetan, Alex Txikon, Ali Sadpara eta Daniel Nardi edurretan ibili dira, izotz paretak eskalau, haizeari aurre egin eta -50°Ceko tenperaturak sufridu dabez, zazpi eta hamar orduko lanaldietan. "Honetan gogo bizia jarri dogunik behintzat ez deuskue ukatuko" dino Alex Txikonek bere facebook-ean.

MOTORRAK

Bizkaiko motorzaleen senidetasun bazkaria

Irati Urien

Apirilaren 18an Bizkaiko motorzaleen senidetasun bazkaria egingo da Areatzan. Eguraldi ona egin ezker motorzaleak ibilbide bat egingo dabe Arratiatik zehar goizeko 11:00ak inguruan urtenda. 13:00etan poteoa egingo dabe Areatzako tabernetatik zehar eta 15:00etan bazkaria egongo da bainuetxean. Arrastian motor jokoak egiten ahaleginduko dira eta gaubean kontzerturen bat

egongo da Laminetxe Gaztetxean. Urte bakotxean Bizkaiko motor klub bateri toketan jako egun honen antolakuntzea eta aurten, Arratia Motor Taldearena izan da ardura hori. Bertako kide baten esanetan 10-12 klub etorriko dira eta daborduko ehun txartel saldu-ta dagoz, tiket hondar batzuk baino ez ei dira geldituten. Honek erosteko, Igorreko Berezi tabernan zein Areatzako bainuetxean egongo da aukerea hogeta bi euroren truke.



Arratia Motor Taldea.

BEISBOLA

Antonio Merlan: "Jokalari bakotxaren ekarpena funtsezkoa da taldearentzat"

Antonio Merlan, beisbol jokalaria kubatarra, Igorreko Institutuan egon zan martiaren 26an, beisbolaren oinarriak erakusten ikasleai. BEGITUGAZ be egon zan, beisbolaz eta Euskal Herrian biziteko topau dauzan bizigarriez eta oztopoez berba egiten. Orain dala 10 urte etorri zan Euskal Herrira eta euskera ikasten dabil datorren urtean EGA aterateko asmoagaz.

Erredakzioa

Beisbol jokalaria izan zinan Kuban?

Bigarren Hezkuntza Kirol Eskolan hartu ninduen. Dana dala, Kubako Kirol Eskolan ikasketetan errendimendu handia eukitea derrigorrezkoa da. Gauza biak ondo atera nebazan eta probintzietako beisbol txapelketetan jokatu neban; Villalara probintziako taldean, hain zuzen be. Goi mailako Kirol Eskolara be heldu nintzan baina gero unibersidadera jo eta Ingeniaritza ikasi neban. Kuban Turismo arloan egin neban behar eta holan ezetu neban Euskal Herria. Beisbola asko gustetan jata eta kirol honen oinariak erakusten dodaz orain.

Zergaitik etorri zinan Euskal Herria?

Maitemindu nintzalako. Denporaldi baten joan-etorriak egiten nebazan eta gero hemen geratu nintzan. Orain euskera ikasten nabil EGA aterateko asmoagaz. Ingeniari titulua homologauta daukat, eta EGA lortu ezker, matematika, kimika eta abarreko eskolak emon neinkez bizimodua aterateko. Beis-



Antonio Merlan.

bol Federazioaren laguntza badaukat, baina beisbolaren oinarriak erakusteko eskola edo-eta berbal dietatik bakarrik ezin da bizi.

Beisbolak lagunduten dau gaztetxoaren garapenean?

Futbolak baino gehiago. Jokalari bakotxaren ekarpena sano inportantea da taldearentzat eta norbanako moduan garatuten da pertsona. Izan be, danak daukie pisu bardina taldean. Lasterketak emoten dabez puntuak eta, *pitcher*-a

izan ezik, danak egiten dabez lasterketak txandaka. *Pitcher*-ak, barriz, bere trebetasunagaz, beste ekipoko jokalaria lasterketak egitea ebitean dau.

Euskal Herrian badauka etorkizunik beisbolak?

Bizkaian badago talde bat, San Inazio izenekoa, estadu mailan lehenengo hiruren artean egoten dana. Bartzelonakoa, Kanarietakoa eta Bizkaiko San Inazio taldea egoten dira lehenengo hiru postuetan.

MENDIA

Kolazinoko Mendi Eguneko BTT lasterketea irabazi eban Zuberok



Julen Zuberok.

Erredakzioa

Martiaren 28an I. Kolazinoko Mendi Eguna egin zan Bedian. Lehenengoa izan aren, 300 lagunetik gora hartu eben parte hiru modalidadetan: mendi martxea, mendi lasterketea, eta BTT

martxea. Mendiko bizikletan, Julen Zuberok lemoaztarra izan zan txapelduna.

33 km.ko txirindularitza proba honetan, arratiarrak euren nagusitasuna erakutsi eben. Izan be, esandako moduan, Julen Zuberok izan zan txapelduna, eta lehenengo hamarren ar-

tean beste hiru arratiar sailkatu ziran. Lemoako David Bustok, Mikel Epalzak eta Arteako Adrian Umaranek hirugarren, laugarren eta seigarren egin eben hurrengo hurrengo.


Mendi Lasterketea, barriz, denporaldiko bigarren lasterketea izan zan, 23 km.koa. Durangoko David Garcia Gilek irabazi eban 01:45:027ko denporea eginez. Lehenengo arratiarra Iñigo Yurrebaso Bernaola dimoztarrak 02:02:01ean gelditu eban kronoa eta hamabosgarren egin eban.

Antolakuntza lan ona

Hiru probak amaitutakoan, partaideak azpimarratu gura izan dabe antolakuntzaren behar ona. Jokin Zabala eta Asier Lekue Bediako gazteen egitasmoa izan da I. Kolazinoko Mendi Eguna hau, eta 80 boluntario baino gehiago ibili dira beharrean. Hainbat partaidek datorren urtean be parte hartzeako asmoa adierazo dabe sare sozialetan.

Kolazinoko Mendi Eguna sortutako giro ederra herri osoan zabalduta izan eta plazea be jentetz bete eban.

LIBURUA

Timoteo Atutxaren gaineko liburua argitaratu dau Igorreko Udalak

gaz batera, Beinat Anzola Igorreko alkatea eta Karmele Aurrekoetxea kultura zinegotzia egon ziran.

Alkateak erakundeen erantzukizuna memoria historikoa erreperetako orduan azpimarratu eban eta behar hori egiten jarraituteko konpromisoa adierazo eban. "Badakigu hasi baino ez garana egin. Material asko dago aztertzeko" esan eban.

Sasoiko bilakaera historikoa

Oiane Valero liburuaren egileak hartu eban berbea gero. Timoteo Atutxaren sasoiko bilakaera historikoaren barri emon baino lehen, eskerrak emon utsazan laguntza emon eban guztiai baina batez be Nerea Atutxa eta Timoteo Atutxaren familiari, euren "inplikazio sakonagaitik".

Timoteo Atutxa eta bere emazte Juliana Solatxiren sasoi ulertuteko, XIX. mendean gertatu ziran aldaketa batzuk euki behar dirala kontuan esan eban historialariak. Baserriaren krisia, Arratiako trantzia, Foruen munduaren gainbehera, desamortizazioa eta honek ekarri eban gizarte mailako desbardintasuna... Hori dala eta, Timoteo Bilbon hasi zan beharrean eta holan ideologia barriak ezetu eban, batez be, Sabino Aranen ideologia.

Errepublikara garaian zabaldu zan lehenengo batzokia Igorren. EAJ-PNVko Anselmo Totorika izan zan Igorreko alkatea eta Timoteo Atutxak kargu inportanteak izan

heriotzea ikertzeko. Beka horren emoitzea *Timoteo Atutxa Petralanda (1894-1937) Idatziak eta gutunak* liburua izan da.

Martiaren 30ean izan zan liburuaren aurkezpena Lasarte Areatoan. Bertan, Txema Uriarte eta Oiane Valero egileak eta Nerea Atutxa, Timoteo Atutxaren lobe-

Erredakzioa

Heriotza zigorrera kondenau eta 1937ko urri bigarrenaren 29an ejekutau eban Timoteo Atutxa Petralanda igorretarra. Memoria historikoa erreperera guran, Igorreko Udalak beka bat emon eban igorretarraren bizitza eta

ZAZTAPARRAK

Zaztaparretako titiriteroak herririk herri ibiliko dira**Irati Urien**

Zaztaparrak Asti Taldeak titiriteroak prestatu ditu urteurrena ospatuteko. Euririk egin ezean hilaren 17 eta 18ko astegoienean ibiliko dira goiz eta arrasti. Hogei urte dira Arratiako herri guztietatik zehar kaleak animetan, umeak alaituten eta aisialdia koloretzatuten dabizela Zaztaparretakoak. Hori dala eta, hogeigarren urteurrena ospatuteko asmoagaz lehenagoko titiriteroen moduan ibiliko dira herririk herri furgoneta bat hartuta eta lau gauzagaz, herritarrak animetan. Arratiako herri guztiak zeharkatuko dabez eta herri bakotzeko ikus-entzu-

leak aukerea eukiko dabe euren herriko sorpresa ikusi ostean

**Zaztaparrak.**

titiriteroakaz batera biderei ekiteko. Zaztaparretakoak eskatuten daben gauza bakarra aurrerago iragarriko daben ordu eta lekuan egotea da, eta zelan ez ondo pasetako prest joatea. Eguraldiak lagundu ezean hurrengo aste-goienera pasauko da ekintza.

ebazan alderdi jeltzalean.

Gerra eta heriotza zigorra

Gerra denporan Bilbon egon zan Atutxa-Solatxi familia, baina bagilaren 19an frankistak Bilbo hartzean dabenean Igorrera bueltetea erabagi eban. Garagarriaren 28an, Timoteo Atutxa atxilotu eta urri bigarrenaren 19an hil egin eban. Juliana, errepresinoaren erdian geratu zan sei seme-alaba aurrera aterateko. 55 urte gaz hil zan.

Timoteo Atutxak abuztuaren 5ean jakin eban Queipo de Llano heriotza zigorra eskatu ebala beretzat. Atzenengo momentura arte saiatu ziran errebisinoak eskatzen baina ez eban lortu.

Txema Uriarte liburuaren beste egileak ejekuzinoaren hurrengo egunean datautako Atutxak idatzitako hiru gutun irakurri eban. Familiari, lagunai eta EAJ-PNVko ki-deai idatzitakoak ejekuzino baina ordu batzuk lehenago.

Ikerketea ez da amaitu

Timoteo Atutxa zelan hil eban ez dago argi. Nerea Atutxa senitartekoak esan eban Aranzadii eskatu eutseela hau ikertutea, baina atzenean familiako batzuk ez ziran ados egon eta momentuz argitu barik geratu da.

KIÑU GAZTETXEA

Esti eta Olatzen kontzertua eta beste ekintza batzuk Igorreko Gaztetxean**Irati Urien**

Apirilaren 10ean, barikua, Esti eta Olatz abeslariak izango dira Igorreko Kiñu Gaztetxean; Zeanuriko bikoteak 20:30ean eskeiniko dau kontzertua. Apirilaren 12an, barriz, bosgarren Eizu Change egingo da Kiñun. Betiko lez 11:00etatik 19:00etara egongo da zabalik azokea. Hilaren bigarren hamabostaldirako hitzordu berezia prestatuko dabe Kiñukoak; izan be, Igorreko Gaztetxea zabaldu ebeneko lehenengo urteurrena ospatuko da. Egun guztiko egitaraua antolatu dabe, lheskide eta Arkada Social musika talde ezagunak kontzertua emongo dabe berbarako.

Kili-Kili Urtxun 2004

Umeen denda
94 673 63 51
Agirre Lehendakaria 10
Igorre
kilkiligorre@gmail.com

Psikologia orokorra
Foniatro eta bikoita terapiak
Psikopatologia (esku hartze psikologikoa mentzak jokoak gero eta euren jantziak)
Sexologia
Konsultak pribatuak, etxean eta on-line

Sagrario Martin Iñigo
Psikologian doktorea

San Juan sarea 29, beheko - Igorre - 94 657 66 10
www.sagrariomartin.com - helbide@sagrariomartin.com

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

Zugatik **BEGITU**ten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Larrea
Lehendakari Agirre, 8 beheko
48140 Igorre

INMOBILIARIA
Tfnoa: 94 631 80 04

Olaetxe
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptik@hotmail.es

24h
Egunkari Ogiak
EGUNEKO
OGIA
vending pan
IGORRE
Lehendakari Agirre

ASESORIA
Gorbeialde
Juridika - Fiskala - Lanekoa - Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

LABURBIRA

Laburbirako filmak hilaren 17an Areatzan

Erredakzioa

Data aldaketea egon da Areatzan, Topaguneak antolatuten dauan Laburbira zirkuituko filmak ikusi ahal izateko. Apirilaren 17an proiektuak dabaz zortzi filmok arrastiko 19:30ean Udal Areatoan.

Zortzi ikus-entzunezko labur eskeiniko dira, 2013an eta 2014an sortutakoak, ordu eta lauren inguruko emonaldian. Koldo Almandozen *Hubert Le Blonen azken hegaldia*, Igone Arreitunandiaren *Ein land*, Kepa Errastiren *Aitona Mantangorria*, Asier Altunaren *Zela Trovke*, Asier Urbietaren *Arconada*, Kote Camachoren *Don Miguel*, Ixone Aroma, Aritz Lasarguren eta Asier Veraren *Zaunk!* eta Aitor Arregiren *Zarautzen erosi zuen* dira filmok.



BERBALDIA

Jasone Osorok sormen prozesua azaldu eutsen Institutuko ikasleai



Jasone Osoro.

Erredakzioa

"Inspirazioa tenedore bat da" izeneko berbaldia emon eban Jasone Osoro idazleak Igorreko Institutuan Kultur Hamabostaldiaren barruan. Sormen lan bat egiteko, memoria eta irudimena behar dirala esan eban. Ondoren, ikasleek itaunak erantzun ebazan. Batez be, ikasleak jakin gura izan eban euren irakurritako *Jara* eta *Ezekiel* liburuak zelan sortu ziran.

Sormen lan bat egin ahal izateko memoria eta irudimena behar dirala esan eban Osorok. Informazioaren iturria memoria da, baina errealidade bakarra ez da existiduten, eta memoria eta irudimenaren bidez intepretetan

dogu errealidadea. Bost urteko umeak irudimen handia eukiten dabe eta memoria gitxi eta edadean aurrera egin ahala, irudimena baztertu egiten dogu.

Horren adibide bat emon eban Osorok. NASAk bertako beharginak kontratetako jenialtasuna neurtzeko test bat egiten dau. Ikertzaile batek test hau berau pasau eutsen bost urteko, hamabost urteko eta nagusi molto bateri. Bost urteko % 98k "jenioen" moduan erantzun eban; 15 urtekoen artean % 12k baino ez eta nagusien artean % 2k. "Irudimenak muskulu baten moduan funtzionetan dau, zenbat eta gehiago erabili, orduan eta handiago da" esan eban idazleak.

ERAKUSKETEAK

Arratiako tranbia Azpeitian

Erredakzioa

Aprilaren 6ra arte, Azpeitiako Burdinbidearen Euskal Museoa egongo da Arratiako Tranbiaren gaineko erakusketea. Jon Urutxurtu zeanuriztarra da erakusketeran komisarioa eta Zertu Kultur Elkar-teak eroan dau aurrera proiektua beragaz batera. Burdinbidearen Euskal Museoa trenagaz erlazionatuko Europako bilduma onenetakoa aurkezten da. Han, mota askotako ibilgailuak dagoz: lurrun lokomotorak, lokomotara diesel eta elektrikoak, automotoreak eta bagoiak.

Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Eleketrikoa. 50 urte Arratiako tranbia barik izeneko

erakusketea osotuten daben elementuen artean, 150 argazki, grafikoak, prensako albisteak, zineko irudiak (Julian Elejosteren, Felipe Manterolaren eta NODOaren grabazioak), txartelak eta bestelako objektuak dagoz. Baita tranbien hiru maketa be.

Burdinbidearen Euskal Museoa egon baino lehen, Zeanurin eta Igorren egon zan ikusgai tranbiaren erakusketea, eta tranbiagaz loturea daukien hainbat herritan egongo da urtean zehar. Arratiako hurrengo zitea Lemoan izango da Udalak maiatzean antolatutako kultur astearen barruan. Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzea euki dau eta erakusketea egongo dan herrietakoa be.



Tranbiaren gaineko erakusketea Burdinbidearen Euskal Museoa.

DUNBA

Dimako ikasleak be Korrikaren alde

Ugarana Ikastetxeko ikasleak

19. Korrika Urepelen hasi eta Bilbon amaitu zan. Aurten ez da Dimatik pasau baina Dima Ugarana eskolatik Korrika Txiki antolatu eta egin genduan.

Goizean ekintzak egin genduzan. Goiz guztian zehar jolasean ibili ginan. Arrastian Korrika Txiki egin genduan. Eskolatik urten eta Dimako Ibarra auzotik pasau ostean herriko frontoi txikian amaitu genduan. Maila baxotxari tartetxo bat

egokitu jakon eta apurka-apurka taldea handitzen joan zan. Lekukoa maila desbardinatiko ordezkari batek eroan eban.

Hori guztia eskolako euskera batzordeak, ikasleak osotua, antolatu dau.

Zapatuan Arratiatik pasau zan Korrika eta Dimako eskolako kilometroa Alzustako autobus geralekua pasata izan zan, 2.265 km. Bertan 19:33an eskolako ikasle batek hartu eban lekukoa.

Badakigu euskaldun eta



Dimako ikasleak.

euskaltzale guztiok osotuten doguna Euskal Herria, Euskararen

Herria. Eta horixe aldarrikatu gura dogu: guztion artean, auzolanean



eta alkarlanean, euskeraz biziko dan herria, euskalakariz osotutako herria lortu ahal dogula.

IZAN EUSKAHALDUN danon artean lortuko dogu eta!

AGENDEA

**APRILAK 3
DIMA**

19:00etan, "Diman etxean gura doguz", preso eta iheslarien aldeko kontzentrazioa.

**APRILAK 7
BEDIA**

Hilaren 17ra arte, 17:00etatik 20:00etara, Bediako jaietan pala eta frontenisean parte hartzeako izen emotea. Liburutegian.

**APRILAK 9
AREATZA**

18:00etan, autobusa Euskaldunara, BOS eta Teo Gheorghiu pianojolearen kontzertura joateko. Eleiz portalean.

**APRILAK 10
IGORRE**


20:30ean, Esti eta Olatzen kontzertua Kiñu Gaztetxean.

**ZEBERIO**

19:00etan, Bola Txapelketako botaldia. Ermitabarrin.

**APRILAK 11
IGORRE**

09:00etan, Igorreko Udalak eta jubiladuek

**Iñigo Aranbarri Irakurle Klubean**

Apirilaren 16an, arrastiko zazpiretan izango da Bediako Irakurle Klubaren hurrengo saioa. Iñigo Aranbarri idazlea egongo da Bediako liburutegian, *Apirila* (Susa, 2014) bere liburua irakurleakaz komentetako. Aranbarri 2008an Zidarrezko Euskadi Saria jaso eban *Zulo bat uretan* liburuagaitik.

Apirila nobelan Azkoitian 1766an gertatutako matxinadea kontetan da. Urte haretan, garia eta artoaren prezioak garestitu eta herritarrak matxinatu egin ziran. Kontakizuna plano bitan mobiduten da: iragana eta oraina, garuko krisi garaia eta antxinakoa.

antolatuta, mendi ibilbidea eta ostein hamaiketako. Ibilbidea: Lasarte Aretoa, Gezala, Erreketa, Atxarrieta, Guardearren txabola barria, Guardearren txabola zaharra, Untxurtu, Gezala, Lasarte Aretoa.

22:00etan, zinea *El francotirador* Lasarte Aretoan.

LEMOA

10:00etatik 20:30era, Alebin Mailako Harrobi Futbol Txapelketa. Arlonagusian.

**APRILAK 12
IGORRE**

11:00etatik 19:00etara, Eizu change azokea Kiñu Gaztetxean.

17:00etan, zinea *El libro de la vida*. 19:30ean, *El francotirador* Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

20:00etan, zinea *La bicicleta verde* udaletxeko bigarren solairuan. Sarrerea doban.

**APRILAK 15
IGORRE**

Jubiladuen eskursioan (Ventorrora) izena

emoteko atzen eguna. Eskursioa apirilaren 18 eta 19an izango da.

**APRILAK 16
LEMOA**

19:00etan, *Palestine (off the record)* dokumentala eta Eneko Gerrikabeitiagaz solasaldia. Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

**APRILAK 17
AREATZA**

19:30ean Laburbira euskerazko film laburren emonaldia. Zertu Kultur Elkarrekin antolatuta Udal Aretoan.

LEMOA

19:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta *Stretching* saioa (luzamentuak) Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

IRAGARKI LABURRAK

**SALDU
PISUA SALGAI**

Zeanurin, plazan, duplex-a salgai. 100m², hiru logela, komun bi, trastelekua eta garajea. Eraikin barria. Interesautan egon ezker, 686 495 724 telefonora deitu.

**DANERIK
HAUR ZAINZA EREMU ZABALEAN**

Haur zaintza edo etxeko beharrak egiteko laguntza behar dozu? ordu pare bat, egun osorako edo-eta hile baterako? Jaunartze, urtebetetze, ezkontza, batzarretan... ekintzak egiten doguz (globoflexia, eskulanak...). Deitu konpromiso barik 639 293 539 Eider.

KOTXKO GILTZAK TOPAU DODAZ

Kotxeko giltzak agertu jataz eta eskerrak emon gure deusuedaz hori posible egin dozuen guztiai.

ETXEAK EDO GELAK ALOKAIRUAN

Conil de la Fronteran etxeak zein gelak alokatzen dira. 647 126 074 Rosario.

BEHAR BILA

Etxeko beharrak eta garbiketarak egiten

dodaz. Kotxeduna. 658 591 307.

INGELES ESKOLAK

Ingeles irakasleak eskola partikularrak emoten ditu. Cambridgeko "Certificate of Proficiency in English" titulua daukat eta Erresuma Batuan bizi izan naz 4 urtez. Irune 615 708 238.

BASERRIRAKO LAGUN BILA


Baserrian biziteko lagun bila nabil (Zeberio). Bilbotik ordu erdira eta herrigunetik (denda, mediku, taberna...) 10 minutura oinez. 200 euro personako, gastuak barne. Interesatuak deitu 687 338 515 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa**Zenbaki honetako saridunak:**

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *El francotirador* filmarako.

Miren Atutxa (Igorre)
Gorka Menendez (Galdakao)



2 Axpe Goikoak emondako Garena txakolinaren kutxatxoa.

Maitane Olatz Bilbao (Areatza)




Zerturen argitalpenak jasoko dozu,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 13 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA


1.- Altzau. Ezetza. 2.- Artzain ebola. Garaio. 3.- Nasai. Amerizioa. 4.- Euzko Gaztedi. Dima udalerriko auzoa. 5.- Urten. 6.- Liburu baten aldaki bakotxa. Landara mota bat. 7.- Barioa. Artez ez dagoana. 8.- Aldats. Nafarroako mendebaleko udalerria. 9.- Begiak itxita. Zorua.

GOITIK BEHERA

1.- Kaskari. Trebe. 2.- Apropos. 3.- Sasitza. Bokala. 4.- Zeroaren ikur. Oxigenoa. Bigarren bokala. Bokala. Bokala. 5.- Bat erromatar. Arrunt. 6.- Behin betiko. 7.- Karga. Giroa.



Topau izaki mitiko eta fantastikoren zazpi izen.



AKI MI KO

Zorrozki illo



AKITEGIA
GAV & LORA
IGORRE

ZEKUTZE
JATETxea
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83

Dia %
PEDRO
AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu
Bixarra egin eta txukunduten dogu
Elexalde, 20 Rober ☎ 630 743 543
48.140 Igorre Manuel ☎ 661 848 793

Egin zaitez Begitu lagun!

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Los Chopos
neurria egindako armairuak
Arda, Los Chopos, 55 (Nigar) Tel.: 94 430 40 94
Esposizinoa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Baimenak: A1, A, B77, B
Lehendakari Agirre 31
Tfnoa: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskatel.net

begitu
amata ubide zabala

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a ☎ 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia ☎ 609-79-40-54

KIRRU ILEAPANDEGIA SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
☎ 94 631 92 06

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: urrozulu@euskatel.net

IBON IZA

Diman grabautako filmak zinea eta bertsolaritza buztartzen dauz

Igorreko Luzetu Barik Film Laburren Lehiaketan, saria izan eban *Txakile* Diman grabautako filmak. *Txakile* Ibon Iza zuzendariaren orain arteko produkzionik handiena izan arren, ez da bere lehengo lana zinean. Zine zuzendari, aktore, bertsolari, irakasle... gizon polifazetikoa da Iza eta bere sormen prozesu, behar egiteko modu eta proiektuen inguruaren gainean egin dau berba alkarrizketa honetan.

Erredakzioa

Makina bat gauza egin arren, bizimodua irakasle izatetik ateraten dozu, ezta?

Bai, Igorreko eskolan egiten dot behar gaur egun. Lanbide Heziketan Irudi eta Soinu irakasle ibili nintzan zortzi bat urtez, eta gero oposaketak egon ziran, plazea atera neban eta Lehen Hezkuntzan hasi nintzan.

Bertsolaritza irakaslea be izan nintzan orain dala urte asko. Gero Dimako Bertso Eskolea sortu genduan eta gaur egun hor gabiz bertso eskolea berreskuratu guran.

Zine zuzendari, bertsolari, irakasle... danerik egiten dozu!

Bai, danerik. Antzerkia be egin dot. Arte Ederrak egiten hasi nintzan, nire helburua zan Irudia eta Soinua egitea. Baina gero pintura be gustau jatan, eskultorea be bai, eta musika. Dana gustau jatan. Egun baten han etorri jakuzan antzerki talde batekoak ea antzerkia egin gura genduan esanez. Nik malabareak egiten nekian, eta malabarista hasi

nintzan. Gero testu bat sartu eta apurka-apurka hobetuten. Antzerkia asko gustetan jata.

Zineagaz be beti euki dot loturea. Irudia eta Soinua ikasketak egin nebazan eta orduan hasi nintzan metraje laburrak egiten.

Bertsolaritzan umetan hasi nintzan. Lehenengo Karmele andereño gaz eskolan eta gero bat-batekoa Lopategigaz hasi ginan egiten 6. maila inguruan. Eskolarik eskolara ibiltzen ginan kantetan. Askotan, Lopategi eskolara etorten zan gure bila eta gero andereñoak esan behar eutsen gurasoai Gipuzkoan, Gernikan edo Ondarrun gengozala. Lopategigaz plazea, bertsolaritza eta bizitza zer diran ikasi genduan.

Txakile filmaren zuzendaria zara baina ez da zure lehenengo lana zinean.

Ez. Metraje laburrak karreraren egiten hasi nintzan. Egin neban lehenengo *Los licenciados* izan zan, galdu egin dana. Lehiaketa batera aurkeztu genduan eta galdu egin zan. Gero Joseba Rodriguez koinatuagaz egin dodaz hainbat lan. Josebak ondo

kontroletan dau irudia eta soinua. Bera da aditua. Nik ideak botaten dodaz. Orain dala urte batzuk, Joseba Rodriguezen *Kanteik* filman be parte hartu neban, aktore lanetan.

Eskolan be egiten doguz bideotxo batzuk eta bertso-antzerkia. Institutuko ikasleakaz *Makarroiak* labur metrajea egin dot. Nik aitaren papela egin neban han. Aktore lanak be egiten dodaz. Danerik.

Baina *Txakile* izan da produkzionik handiena. Hamar minutu daukaz eta super produzinoa izan da.

Txakilen jente askok hartu dau parte. Zelan sortu zan idea eta zelan joan zan grabazioa?

Bola jokoa ibili nintzan denporaldi baten sortu zan idea. Gure lagun Urtzi Uriarteren etxera joan ginan pelikula bat ikusten eta *El gran Lebowski* ikusi genduan. Coen anaiei fans handiak gara. Eta han John Turturrok egiten dauan personajea bolera baten dago eta hori Arratia-rra ekarte pentsau genduan. Bola jokoen gorabehera sortu dan istorioa da *Txakile*.

Bola jokoa oso errotuta dago Euskal Herrian, edadeko jenteak jokatuten dau eta aholkuak emoten dauz, giroa sano maskulinoa da. Eta handik etorri jatan idea, zelan arrotz bat, kanpoztar bat sartzean dan hor munduan.

Orduan, hori istorioori sortu neban, bertsolaritzegaz lotuta, ze Bertsomoviedan aurkezteko asmoagaz egin neban. Aurten aurkeztuko dogu Bertsomoviedan, bertsoa eta zinea buztartzen dauan lehiaketan.

Diman grabauta dago, Dimako

"*Txakile* filmari, Youtuben, botoa emon ahal izango jako Bertsomovieda lehiaketarako"



bizimodua erakusten dau?

Dimagaz lotura handia daukien gauza asko dagoz filman. Esate baterako, Dimako "aita"ren papela Zefe Ziarrustak egiten dau; zenbakiak Mikel Iriondok eroaten dauz, sano ekonomista ona da Mikel Iriondo... Eta badagoz beste erreferentzia batzuk herriagaz oso lotuta dagozanak.

Egun baten grabau genduan. Eta bata mezara joan behar zala, bestea amamarenera bazkaien...

Zelako mobida herrian, ezta?

Bai. Ehun persona inguru mobidu genduzan eta hori mobidutea gatxa da. Bakotzak bere txikitasuna ikusten dau "nik zer egin behar dot?" "nire papela zein da?". Eta klaro, jenteak ez eban ikusten zelan geratuko zan. Egia esan, guk be idea lauso bat geunkan. Pentsauta daukazuna eta urteten dana mundu bi dira. Baina txukun geratu da eta pozik gagoz egin genduan beharragaz.

Noz aurkeztuko dozue Bertsomovieda lehiaketan?

Ontxe zabaldu da epea. Gipuzkoan oso errotuta dago lehiaketa hau eta orain arte Bizkaitik apenas aurkeztu da ezer. Horregaitik gura esan genduan, gurea eta geure euskalkian

aurkeztea, Euskal Herrian aniztasun handia dagoalako.

Joseba Rodriguezek esan eustan gidoia egiten badozu, grabauko dogu eta halaxe egin genduan.

Youtuben ez dago.

Ontxe igoteko gara. Bertsomoviedan botoa emoteko klik egin behar jako gustetan bajatzu. Jenteak ikusi eta botoa emon dagian etxon egin dogu. Marketing kontua.

Zeintzuk dira zure hurrengo proiektuak?

Gauza bi daukadaz buruan. Bata, Borja Estankonaren bideoklipa da. Igorreko Kiñu Gaztetxean grabauko doguz irudi batzuk, eta beste batzuk Diman, kobazuloen inguruan. Bestea film labur bat da, baina ondino ezin dot gauza handirik esan.

Eta eskolan bertso antzerkia antolatu dogu. Antzezlan *Zenbaki zen bati* deitzean da eta irakasleai kritikaxoa egiten jakie hor. Askotan umeak zenbakiak lez tratetan doguz, eta ez persona moduan. Lan honetan, umeak eurak zenbaki lez agertzen dira. Hor dagoz batuketa eta kenketa, 4,83a bostera heltzean ez dana eta triste bizi dana...



www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net

Zabalik 07:00 - 19:00

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)



KARCHER
Banatzaile ofiziala

















• Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
• Garraio zerbitzua.